

07/03/2009

Zumalakarregi, museo birtual berritua

Zumalakarregi museoaren azpiegitura berrituak, Ormaiztegin.

xIX. mendeko historiaren erreferentzia da Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoa. Izena ematen dion euskal pertsonaiaren garaitik, lehen gerra karlistatik abiatuta, mende osoko euskal historia biltzen du bere pareten artean. Eta, orain, bere webgunean ere bai.

"Orain lauzpabost urte ekin genion ekimen berri honi", esan du Mikel Alberdik, Zumalakarregi Museoko arduradunetako batek: "Jakin badakigu museo batentzat, webguneak afixa baten papera betetzen duela. Guk, ordea, haran- tzago joan nahi genuen". Eta, lortu ere, lortu dute.

Zumalakarregi Museoaren webgunea (www.zm.gipuzkoakultura.net) museo birtual bihurtu dute urteotan egindako lanarekin. "Gure helburua, bezeroekin ezarritako harremana oraindik handiagoa egitea eta informazioa trukatzea da hein handi batean", esan zuen Alberdik.

Orain arte, bai Zumalakarregi Museoak eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiak ere, biek duten grabatu andana ikusita, horiek jendearen artean zabaltzea helburu izan dute. Hala, urtero gai desberdinen harira, hilean behin webgunea egunera- tzen zen museotik.

Euskal Herriko historiaren artea bezeroen eskura jartzen zuten, honen inguruko galdera batekin batera. Hilabete osoan zehar partaide askok erantzuten zuten galdera, baita gaiaren inguruko informazioa edota hamaika bitxikerien berri emanez ere.

Aurten, baina, pauso bat aurrerago joan nahi izan dute. Horretarako, webgunearen barruan, blog bat sortu berri dute. Hala, orain arte hilabetean behin berritzen zutena, orain parte-hartzaileari gehiago elkar eraginarazi eta interesatuko zaion tresna bihurtu dute.

Bloga, historiaren igorle

"Gure eskutan dauden 4.000 grabatu inguruak jendearen eskuetara eraman nahi ditugu", esan zuen Alberdik. Izan ere, bere ustetan, jende askok ez daki material guzti hori edonoren eskura dagoenik. "Modu honetara, erabiltzaileek historia bakarrik ez, grabatu hauek ere ezagutu ahal izango dituzte". Milaka horien artean, hamaika harribitxi ere badaude Alberdiren esanetan.

Hala, grabatuak eta hauen kopiak lantzen hasi dira blog honetan. "XIX. mendeko irudi bat eta horren kopia bat edo batzuk jarriko ditugu hilerot", azaldu zuen Alberdik. Hala, helburua gai horren inguruan jolastea izango da, hein handi batean.

Zerbitzu berri hau hilabete honetan bertan jarri du martxan museoak, eta interakzioa abian da berriro. Jendeak ez du interesik falta, eta hori da garrantzitsuena Alberdiren iritzitan.